



Sagardoa egiteko prozesua ezagutu eta uza berriko lehen muztioak dastatzeko aukera izan zuten Astigarragako Sagarraren Uztara gerturatu zirenek.

Jende ugari bildu da aurten ere Sagarraren Uztara jaian

Eguraldiak lagunduta, era guzietako ekimenak antolatu dituzte sagarraren eta sagardoaren inguruan.

Sagarra eta sagardoaren herria da Astigarraga, besteak beste, eta bi elementu horien inguruan Sagarraren Uztara jaia ospatu dute aurten ere, tolaareetan lanak hasi diren honetan. Sagarra eta sagardoaren inguruko ekimen ugari antolatu zituzten irailaren 24an eta denboraldi berriari hasiera emateko jaia- ren hamaikagarren edizioa oso jendetsua izan zen. Eguraldiak lagundu egin zuen eta inork ez zuen sagarraren eta sagardoaz gozatzeko aukera paregabe hau galdu nahi izan.

Foruen plazan sagarraren azoka izan zen egun osoan zehar eta bertan uztako lehen muztioak dastatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren guz- tiek. Horrez gain, tolaareetan gertatzen den prozesua ikusi eta ezagutzeko parada izan zuten ikusleek.

Sagarraren Uztara jaia ere antolatu zuten eta 22 sukaldar- rik aurkeztu zituzten euren elab- orazioak. Epaimahaiak nahiko lan izan zuen tarta onenak aukeratzeko, baina azkenean eman zuen bere epaia eta tar-

ta onen hiru egileek bi la- nentzako afariak irabazi zit- ten Astigarragako Roxario, ' de eta Ibai-Lur jatetxeetan. H- gutxi balitz, laugarren urt- 53 pertsonak parte hartu zu- Argazki Rally Digitallean.

Arratsaldean, sagarraren bilke eta sagardoaren elaborazi- oinarritutako sagardogintz- herri kirolen lehiaketa osp- zen Txopinondo, Mina, Rez Petritegi, Lizeaga eta Alorre sagardogileen artean eta b- rren urtez jarraian, Astiga- gako Rezola sagardotegia i- zen garaile.

Bestalde, Sagarraren Uztara jaia ere antolatutako jardueren a- an, irailaren 21ean "Erma- mendiko tolaareetan zehar- bide tematikoa" proiektu tu- tiko-kulturala aurkeztu zu- eta irailaren 23an Euskal H- ko sagarraren kata gidatua i- zatu zuten Astigarragako R- rio jatetxean.